

MungiaHarro 2025

Gaia:

Mungia Herri Bizia

Helburua gure udalerrinari, bertan bizi diranei eta zure ustez bizitzaz betetako Mungia izatea eragiten daben egoera guztiei protagonismoa emotea da.

Parte-hartzaileak:

gura daben pertsona guztiek hartu ahal izango dabe parte, profesionalak zein zaleak izan, beti bere euren lanak oinarri honeetara egokitu ezker. Adingabeen kasuan, legezko ordezkariaren idatzizko berriazko baimena izan beharko dabe.

Argazkiek originalak eta eskusiboak izan beharko dabe, eta ezin izango dabe parte hartu aurretik edozein lehiaketatan argitaratu edo saritutakoek; ganera eskubideetatik libre egon beharko dabe.

Argazkien formatua eta ezaugarriak:

digitala eta formatu horizontalekoa izango da. Fitxategiak .jpg, .bmp edo .tiff. izango dira.

Irudiek gitxienez 300 pixel izan beharko dabez. Koloretakoak edo zuri-baltzekoak izan leitezke.

Argazkiak editatuta egon ahal izango dira, beti bere eurotan testuak edo logotipoak gehitzen ez badira.

Parte-hartzaile bakotzak gehienez 12 argazki aurkeztu ahal izango daz.

Antolakuntzak beretzat gordetzen dau beharrezko kalidaderik ez daukien argazkiak lehiaketatik kanpo ixteko eskubidea, batez bere desenfokatuta dagozanak edo egutegian, erakusketan eta kanpainaren ganerako euskarrietan inprimatzeko nahikoa ez diranak. Era berean, epaimahaiak edozein unetan deskalifikatu ahal izango daz zalantzazko egiletza daukien irudiak, pertsonen duintasunaren aurkakoak diranak, emakumeentzat iraingarriak diranak eta indarkeria matxista justifikatzen dabenak; baita beste obra batzuen plagiotsat jotzen dabezanak bere.

Aurkezteko epea eta modua:

2024ko urriaren 22ra arte

1. Posta elektronikoz: mungiarron.egutegia@gmail.com
2. HAZ-SAC: formatu digitalean aurkeztuta, gutun-azal itxiaren barruan eta izenburu honegaz: "Argazki-lehiaketa: Udal Egutegia-MungiaHARRO 2025".
3. Posta arruntez: Mungia Udal (Argazki lehiaketa: Udal Egutegia-MungiaHARRO 2025). Trobika kalea, 1 48100 Mungia (Bizkaia)

Kasu guztietan, honako datu honeek adierazoko dira: izen-abizenak, harremanetarako helbidea eta telefono-zenbakia, posta elektronikoa eta aurkeztutako argazki bakotxaren izenburua, lekua, egoera, data, sasoi...

Baimena:

pertsonak agertzen diran irudien kasuan, persona horreen baimen sinatua erantsi beharko da, Mungia Udalak erabili ahal izan daizan; baimen hori antolatzaileek emondako dokumentuan jasota aurkeztuko da, beti bere programatutako ekitaldi edo jarduera publikoen irudiak ez badira (baimen-eredua mungiarron.egutegia@gmail.com helbide elektronikoaren bidez eskuratu ahal da).

Argazkiak hautatzeko modua:

- **Irudi irabazlea:** epaimahai batek aukeratuko dau eta 2025eko egutegiaren azala ilustratuko dau.
- **Egutegiko hilabeteetako irudiak:** epaimahaiak egutegiko hilabeteak irudikatzen irudirik onenak aukeratuko daz, eta irudiok finalera pasako dira, herritarren parte-hartzearen bidez hautatuak izateko. Aukeraketa modu bitan egingo da: bata aurrez aurre antolatuko dan erakusketan eta, bestea, online www.mungia.eus gunean.

Herri-aukeraketa parte hartzen daben pertsona guztien artean, 100 €-ko balioko otzarea zozketatuko da, Mungia Udalak produktuez betea (Mungian erroldatutako 16 urtetik gorako pertsonen parte hartu ahal izango dabe irudien aukeraketa honetan).

Sariak:

- **Argazkia Azala:** 300 €-ko bonua Mungia Udalaren establezimenduetan erabiltzeko.
- **Egutegiko 12 hilabeteetan argitaratutako argazkiak** oroigarri bat hartuko dabe.

Azaleko irudia eta egutegiaren hilabeteak erakusten dabezanak sari-banaketan jakinarazoko dira, egutegiaren aurkezpenagaz batera.

Saritutako argazkien erabilera:

saritutako argazkiak Mungia Udal egutegian argitaratuko dira. Ganera, argitaratutako irudiak udalaren esku geratuko dira, eta udalak izango dau erreproduzitzeko edo argitaratzeko eskubidea, beti bere egilearen izena agertuta.

Oinarriak onartzea: lehiaketan izena eman eta parte hartzen duten pertsonen onartu egiten dabez oinarri honeek argazkiak ematen diran unetik gora, baita antolatzaileek oinarri buruz egiten daben interpretazioa bere.

+ INFO


mungiarron.egutegia@gmail.com

www.mungia.eus



[mungiarron.egutegia](https://www.facebook.com/mungiarron.egutegia)
[@mungiharroegutegia](https://www.instagram.com/mungiharroegutegia)

Concurso fotográfico Calendario 2025



MUNGIA
UDALA



Mungia
geure
ikurre